GURE BIZILAGUNAK

Zabalgana hiribideko 8. portalean 5 bizilagun hauek bizi dira. Solairu bakoitzean nor bizi den asmatu behar duzu hurrengo pistak kontu handiz irakurriz. Dirudiena baino errazagoa da! Gogoratu inor ez dela bizi portalean, beraz etxeko sarreran ez duzu ezer jarri behar!

	IZENA	KOLOREA	MASKOTA	ZALETASUNA	IGOGAILUA
5. solairua					
4. solairua					
3. solairua					
2. solairua					
1. solairua					
SARRERA					

Izenak: HODEI ANDONI ITSASO NAGORE MIRIAM

Koloreak: TXURIA MOREA URDINA HORIA BERDEA

Maskotak: SUGEA ARRAINAK DORTOKA TXAKURRA KATUA

Zaletasunak: FUTBOLA IGERIKETA PATINATZEA PELIKULAK MENDIA

1) Gure bizilagunen izenak ordenatuta daude alfabetoaren arabera. Alfabetoko lehenengo letrak 1. solairuan kokatzen dira. Nagore goiko solairuan bizi da.

2) Hodeik eta Andonik arazo bat izan zuten, baten katua etxetik atera, solairuz jaitsi eta bestearen arrainak jaten saiatu zelako.

3) Nagoreren zaletasuna mendira joatea denez, mendira eramaten du bere maskota igandero.

4) Itsasori beldurra ematen diote sugeek, berak maskota lasaiago bat nahi zuen.

5) Hodei eta bere gustuko kolorEa letra berdinaz hasten dira.

6) Itsasoren kolorea, kasualitatez, itsasoen eta ozeanoen kolorea da.

7) Andoniri bi kolore horien nahasketa gustatzen zaio.

8) Nagoreri ez zaio batere gustatzen kolore txuria, kolore horretako arropa berehala zikintzen delako.

9) Miriamen kirol taldeak arropa txuria darama, eta partiden ostean, garbitu egin behar du.

10) Itsasok aldiz, bainujantzi urdinak eramaten ditu bere zaletasunean aritzeko.

11) Andonik zaletasun lasaiago bat dauka, ez da oso kirolzalea.